

AZKUE BIBLIOTEKAREN KATALOGOA (ABK): EUSKALTZAINDIAREN PROIEKTU ESTRATEGIKOETARIKO BAT

Euskaltzaindian irakurria 97ko azaroaren 28an.

*Txostengilea: Pruden Garzia Isasti,
Azkue Bibliotekako zuzendaria*

1. SARRERA

1.1. Zer den katalogoa

Katalogoa biblioteka baten zaintzen den ondarearen deskribapen zehatza da, bibliotekonomiako arauen arabera egindakoa. Esan daiteke biblioteka baten funtzionamendu eta erabilera normalerako ezinbesteko baldintza minimoa dela. Hori gabe zentzugabea da bestelako aurrerapauso edo proiekturik lantzea.

Katalogo on bat egitea lan luzea eta neketsua da, urtetakoa. Era berean, bere eguneratzea edozein bibliotekaren lehentasun nagusia izan ohi da, katalogoak ematen baitu biblioteka baten funtzionamenduaren kalitatearen benetakoa neurria. Hori dela eta, ezinbestekoa da katalogazio prozesuari beharrezko denbora eta baliabideak eskeintzea.

Katalogazioari dagokionez, azken urteotan Azkue Bibliotekak bi erronkari erantzun behar izan die: alde batetik, informatikaren sarrerak erabateko iraultza ekarri du bibliotekonomiaren esparrura, urte gutxitan paperezko katalogo tradizionalak erabat baliogabetuz, eta bestetik, bibliotekonomiako arauci jarraiki katalogoa zentru katalogatzailearen hizkuntzan egin behar denez, Euskaltzaindiak bere bibliotekaren katalogo berria euskaraz egitea erabaki zuen, horrela bere buruari zeregin gaitz bat ezarritz.

1.2. Zertan den katalogoa une honetan

Euskaltzaindiak 1995ean hitzarmen bat sinatu zuen enpresa batekin Azkue Bibliotekaren ondarearen katalogazioa bideratzeko. Urte berean asmo hau Herri Aginteekin sinatutako hitzarmenean jaso zen. Beraz, ABSYS izeneko katalogo-programa erosi zuen (Espainiako Kultur Ministeritzaren aholkuari segituz) eta lau katalogatzaile jarri zituen lanean.

Baldintza horietan lana 1995eko ekainean hasi zen eta orain arte aurreikusitako epeak bete dira.

2. KATALOGOAREN HELBURUAK ETA ARAZO NAGUSIAK

2.1. Bi helburu

Gure katalogoak bi helburu nagusi ditu: lehena, Azkue Bibliotekaren katalogoa izatea, eta bigarrena, erreferentziatzko katalogo bat izatea euskaraz (edo elebitan) katalogatu nahi duten bibliotekentzat.

Lehen helburuak ez du azalpen luzeen beharrik. Gorago esana dugu zer den katalogo bat eta zergatik duen erabateko lehentasuna edozein bibliotekatan. Edonola ere azpimarratzekoa da gure helburua katalogo eredugarri bat egitea dela, bai teknikoki bai hizkuntza aldetik, Euskaltzaindiari ez baitzaio zilegi guxtiagorekin konformatzea. Eta teknikoki katalogo on bat egitea, edozein hizkuntzatan delarik ere, lan luze eta nekoso da.

Bigarren helburuari dagokionez euskararen alorrean Euskaltzaindiak daukan erantzunkizuna eta itzala azpimarratu beharra dago. Azkue Bibliotekaren katalogoa publikoa egiten den unetik, alegia, bukatutzat jotzen denetik, nahitaez erreferentziatzkoa bihurtuko da euskaraz edo elebitan katalogatu nahi duen edozeinentzat. Alperrikakoa da faktu honi itzuri nahi izatea.

2.2. Erreferentziatzko katalogoa

Planteamendu honi bi objektio nagusi egin ahal zaizkio. Bata, ez dela Euskaltzaindiaren eginkizuna euskal katalogazioa bultzatzea, lekuan lekuko Herri Agintena baizik. Bigarrena, Euskaltzaindiak esana duela terminologia teknikoaren alorrean ez duela erabakirik hartuko, eta beraz arriskutsua dela Azkue Bibliotekaren katalogoa Euskaltzaindiaren erabakitzeat aurkeztea.

Kasu bietan objektioak baino erronkak direla esango genuke. Gorago esana dugunez, Euskaltzaindiak euskarazko katalogo bat egitea erabakitzen duen unetik, eginkizun gaitz bat ezartzen dio bere buruari, eta aurre egin behar die horrek dakartzan ondorio guztiei, gustokoak ez baditu ere.

Beraz, Euskaltzaindiak ez du Herri Agintean lana ordezkatu behar, baina bai horiei euskararen arazoak azaldu eta konponbidea erakutsi; era berean, Euskaltzaindiak ezin du epe labur batean katalogo batean paratzen diren problema linguistiko eta terminologiko guztientzat behin betiko konponbidea eman, baina batzuk proposatu behar ditu eta horientzat nolabaiteko estatusa ezarri, behin-behinekoa izanik ere.

Zeintzuk dira, bada, delako arazo linguistiko horiek? Funtsean bi motakoak dira: terminologikoak eta autoritateei dagozkienak.

2.3. Arazo terminologikoak

Katalogoaren sarrera bibliografiko bakoitza zenbait eremutan banatzen da. Bibliotekonomiako arauen arabera horietako batzuk iturri bibliografikoan be-

zala agertu behar dira, baina beste batzuk, berriz, zentru katalogatzailearen hizkuntzan, gure kasuan, euskaraz.

Euskarazko termino horiek funtsean bi eratakoak dira: bibliotekonomiako terminologia eta bestelako terminoak. Lehenengoak “orria” “tomoa” edo “liburukia” bezalako terminoak dira; bigarrenak era guztietakoak dira, baina batez ere liburuaren gaia deskribatzen duten hitzak edo esaerak: “Euskara — Hiztegiak”, “Euskal Herria — Historia — 0476-1523 (Erdi Aroa)” edo “Arte grekoa” bezalakoak.

Kasu bietan katalogogileak erabaki behar ditu bi gauza desberdin: alde batetik hitz horien euskal forma zuzena (ortografia, erabilera, etab.); bestetik, hitz horien esanahi zehatza (gaztelaniazko eta frantsesezko parekidea edota eduki teknikoak). Hortaz gain, hitz horiek ez dira banaka eta modu isolatuan erabiltzen, baizik eta katalogo baten barruan. Hori dela eta, ez da aski banan-banan zuzenak izatea, katalogoaren homogeneousuna eta trinkotasuna errespetatzea baizik, bere barne harreman guztiak kontutan hartuz. Alde horretatik, bereziki azpimarratzekoa da biblioteka baten katalogoa, hizkuntza naturaletik ahal denik eta gertuen egotea gomendatzen bada ere, berez dokumentazio-hizkuntza batean egina dela. Esan nahi da, hizkuntza berezi batean, ez-naturala, alegia.

2.4. Autoritateen arazoa

Autoritateak katalogo bateko sarrera-hitz nagusiak dira; fitxa bibliografiakoaren idazpuruan ipintzen dira eta forma zuzen bakarra daukate katalogo horretan. Katalogogileak erabakitzen du zein den forma onartu bakarra eta lotzen du forma ukatu guztiekin.

Adibidez, jakina da Koldo Mitxelenak bere bizitzan zehar modu desberdinetan sinatu zituela bere lanak, batzutan “Koldo”, bestetan “Luis”, batzutan “Mitxelena”, bestetan “Michelena”. Katalogogilearen lana da katalogo horretako forma zuzen bakarra erabakitzea, eta forma ukatuak zerrendatzea eta zuzenari lotzea (ukatuak direla azalduz). Demagun “Mitxelena, Koldo” aukeratzeko dugula; horrek esan nahi du gure katalogoan Mitxelenaren lan guztiak idazpuru horren azpian aurkituko ditugula, eta “Michelena” eskatzen badugu ordenagailuak adieraziko digula forma zuzena “Mitxelena, Koldo” dela, eta horren arabera egin behar dugula gure bilaketa.

Baina erabaki bakan honen ondorioak itxura batera ematen duena baino askoz ere zabalagoak dira. Kasu bat jartzearen, zergatik deitura bakarra eta ez biak? Ezen eta erabaki behar dugu zein kasutan onartuko dugun deitura bakarra eta zeinetan bi. Adibidez, aski ezaguna da Mitxelenaren bigarren deitura “Elisalt” dela, gutxiago Resurrección María (de) Azkuerena “Aberasturi” dela, baina oso jende gutxi daki Pierre Lhanderen bigarren deitura (eta orobat Iparraldeko jende ospetsu askorena). Arrazoia begibistakoa da: hegoaldeko euskaldunen artean bigarren deitura erabiltzea oso arrunta da, baina aski arraroa

iparraldekoen artean. Zein irizpide segituko du gure katalogoak? Guztientzat berbera? Kasuaren arabera? Tarteko zerbait?

Beste kasu bat jarriko dugu. Mitxelena kasuan garbi dago berak bere deitura bi modutara idazten zuela, tenorearen arabera, eta hortaz ez da zaila guretzat bietako bat hobestea. Baina ez da horrela gertatzen beste pertsona ospetsu askorekin, adibidez Julio Urkixo edo Arturo Kanpion; lehenak “Urquijo” erabiltzen zuen maizenik, baina inoiz edo beste “Urkixo” ere (“Urkijo”, berriz, inoiz ez neuk dakidala); bigarrenak, berriz, inoiz ez zuen “Kanpion” erabili, “Campión” baizik. Bestalde, gauza jakina da Hegoladeko euskaldunen artean orohar joera handia dagoela deituraren ortografia euskararen egungo arauetara aldatzeko; aldiz, Iparraldekoen artean joera nagusia betiko ortografiari eustea da. Garbi izanik hala ere era guztietako kasuak daudela Ipar zein Hegoan. Zein irizpide erabili?.

Azken kasu bat. Jakina da Mitxelena “Koldo” zein “Luis” ponte-izenak erabiltzen zituela, eta ondorioz ez da zaila euskal forma hobestea. Baina Azkueren kasuan ez da horrela gertatzen: berak bere deituraren ortografia espreski euskaldundu arren, ez zuen beste horrenbestekorik egin bere ponte-izenarekin (“Resurrección María (de)” beti). Beraz?

Agian ez dago modurik irizpide amankomun batzuk finkatzeko eta kasu bakoitza banan-banan erabaki behar da. Litekeena da. Edonola ere arazo honi denbora eta ikerketa dexente dedikatu behar zaio ondorio batera iritsi aurretik. Eta edozein kasutan, zuzenketa ugari egin beharko dira katalogoa publiko bihurtu aurretik.

Honainotxe deiturek eta ponte-izenek sor dezaketen arazo batzuen deskribapena. Baina argi dago antzerako problemak kausituko ditugula leku-izenekin, erakunde-izenekin, ordena erlijiosoen izenekin, eta abar. Ez dugu adibiderik jarriko txostena larregi ez luzatu alde.

3. KATALOGAZIO PROZESUAREN DESKRIBAPENA

3.1. Bi arazo mota, lau zirkuitu

Ikusi dugu, beraz, edozein biblioteca espezializatuk dituen ohiko arazo bibliotekonomikoez gain, Euskaltzaindiaren arazo berezi batzuk dituela hizkuntza dela eta. Lehenengoi buruz mundu zabalean hainbat eredu eta konponbide badago ere, bigarreni dagokienez azpimarratu behar da ez dagoela inon euskaraz egindako katalogorik eta, noski, ez dago inon euskaraz katalogatzeko araurik. Zenbait lekutan katalogo elebidunak egiteko saioak egin dira (Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundien biblioteketan batez ere) eta une honetan beste hiruzpalau bibliotekak euskaraz katalogatzea erabaki dute (HABEkoa, Bertsolari Elkartekoa, SHEE-IVEFekoa, etab.). Guztietan zailtasun oso haun-

diak aurkitu dituzte, eta orain arte lortu diren emaitzak ez dira, inolaz ere, asgarri.

Bi arazo mota horiei aurre egiteko Azkue Bibliotekan katalogazio prozesuak lau zirkuitu egiten ditu.

3.2. Bibliotekaren zirkuitua

Hau da liburuak segitzen duen lehenengo zirkuitua. Prozesu guztia katalogazio-buruaren ardurapean dago (Kristina Arana). Katalogatzaileek liburuak katalogazio-gelara jeisten dute eta katalogatu, euskaraz, noski. Horretarako aurrez erabaki diren tresnak (datubaseak, arauak, sarrera-hitzen zerrendak) erabiltzen dituzte, eta zalantzak apuntatzen dituzte. Azpimarratu beharra dago tresna guzti hauek erdaraz baino ez daudela eta, ondorioz, argitu beharreko zalantza ugari sortzen dela. Katalogazio-buruak sarrera guztiak gainbegiratzen ditu, eta bere oharrekin lehenengo zuzenketak egiten dira. Zalantzak bibliotekako zuzendariarekin ebazten ditu. Ondoren liburuei kokapen-txartela eta marra-kodea jarri, eta berriz ere dagozkien geletara jotzen dira.

Zirkuitu honetan batez ere bibliotekonomia arazoak ebazten dira. Ebatzi gabe gelditzen diren zalantzak (linguistikoak eta bestelakoak) hurrengo zirkuitura pasatzen dira. Katalogazio-buruaren lana da prozesu guztia antolatzea eta sarrera guztiak gainbegiratzea hutsak zuzentzeko eta katalogoaren homogeneotasuna eta trinkotasuna ziurtatzeko.

3.3. Batzordearen zirkuitua

Zirkuitu honen arduraduna bibliotekako zuzendaria da (Pruden Garzia). Katalogazio-buruak paratzen dizkion zalantza guztiak bideratzen ditu. Batzuk bere kabuz ebazten ditu eta, ondoren, bigarren zuzenketak egiten dira. Besteak Biblioteka Batzordera bideratzen ditu.

Zirkuitu honetan batez ere arazo linguistikoak ebazten dira. Horretarako zuzendariak, arazoak identifikatu ondoren, horien gaineko informazio guztia bildu, beharrezkoa bada ikerketak eta kontsultak egin, eta proposamen zehatzak aurkezten dizkio Biblioteka Batzordeari. Batzordeak zuzendariaren informazioa eta proposamenak jaso eta eztabaidatzen ditu, erabaki arte. Zuzendaria Batzordearen idazkaria denez, erabakiak betetzeaz arduratzen da. Ondorioz katalogatzaileek hirugarren zuzenketak egiten dituzte.

Arazo linguistikoak era askotakoak izan daitezke. Batzutan, termino baten aukeraketa hutsa baino ez da, baina beste batzutan termino-multzoko haundiak erabaki behar dira. Era berean, batzutan erdarazko hitzen itzulpen/egokitzapena da arazoa, eta beste batzutan, berriz, euskal hitz baten forma zuzena zein den ebaztea. Bestalde, batzutan zuzenketa solteak egin behar dira, baina beste batzutan orain hartutako erabaki batek eragin zuzena dauka aurreko sarrera guztietan, ondorioz denak zuzendu behar direlarik.

Bi zirkuitu horiek osatzen dute Azkue Bibliotekaren barruko ibilbidea. Katalogoaren lehenengo helburua betetzeko (alegia, bibliotekaren katalogo hutsa izatea) aski litzateke deskribaturiko bi zirkuituekin. Baina bigarren helburua betetzeko (alegia, erreferentziako katalogoa izatea) oso motz geratzen da. Hori dela eta, beste bi zirkuitu deskribatuko ditugu.

3.4. Euskaltzaindiaren zirkuitua

Gure katalogoen beharrek ezinbestean bultzatzen gaituzte Euskaltzaindiko beste batzorde batzuekin koordinatzera. Baina biblioteka barruko ibilbidea ondo zehaztuta badago ere, haren harremanak gainetiko batzordeekin oraingoz ez dira zehaztu, jarraiak izan diren arren. Zuzendari berria lanean hasi zenetik saiatu da informazioa biltzen eta, ondorioz, honako proposamenak jaulkitzen ditu.

Bereziki hauekin koordinatu beharko genuke: Onomastika batzordea, Hiztegi Batuko lantaldea eta Literatura Ikerketa azpibatzerdea.

Onomastika batzordeari dagokionez, bistan da katalogoarentzat ezinbestekoak diren gai asko bertan erabakitzen direla. Era berean, garbi esan behar da Onomastika batzordearen erabaki guztiak ezin direla automatikoki katalogoari aplikatu. Adibidez, idazle klasiko latinoen izenen ortografia erabakitzen delarik, Biblioteka batzordeak erabaki dezake bere katalogoan, kontuan harturik nazioarte mailan era honetako katalogotan dauden usadioak, idazlearen forma latinoa erabiliko dela, kasu nominatiboan. Erabaki hau ez dago Onomastikakoari kontrajarrita, aplikazio konkretu baten zehaztapena baizik ez delarik. Beste adibide bat: Onomastika batzordeak erabakitzen duelarik “Baroja” deituraren euskal ortografia zuzena “Baroxa” dela, horrek ez dakar halabeharrez katalogoko autoritateetan “Baroxa” baino ez onartzea (kasuz kasu aztertu beharko da). Eta abar.

Hiztegi Batuko lantaldeak, bestalde, hiztegi arauemailea egiten diharduelarik, ezinbesteko laguntza eskeiniko dio Biblioteka batzordeari terminologia finkatzeko orduan. Baina, jakina denez, hitzaren forma zuzena baino ez du erabakiko, ez hitzaren esanahi tekniko edo erdarazko parekideak. Azken hau Azkue Biblioteka batzordeari dagokio.

Bukatzeko, Literatura Ikerketa azpibatzerdeak, hiztegi bat egiten ari delarik, laguntza handia eman dezake zenbait alorretako terminologia finkatzeko orduan.

Ororen buru koordinazio formula on batera iristea da helburua, prozedurak finkatzea luzea izango bada ere. Printzipioz, hauxe da gure proposamena:

a) Onomastika batzordeari dagokionez, adostu beharko genuke bi edo hiru urteri begira katalogoarentzat garrantzitsuak izan daitezkeen hainbat gai erabakitzea, egutegi bat finkatuz. Hortik kanpo geratuko liratekeen gaiak Bi-

biблиотеka batzordeak erabakiko lituzke. Era berean, bi batzordeen arteko komunikazio etengabea ziurtatu beharko litzateke Biblioteka batzordean hartzen diren erabaki guztien berri zehatz eta azkarra izan dezaten.

b) Hiztegi Batuko lantaldeak sistematikoki gainbegiratu luke Biblioteka batzordean erabakitako terminoen zerrenda, eta oharrak eginaz itzuliko lioke, bien artean adostutako egutegi baten arabera.

c) Biblioteka batzordeak kontutan hartuko luke Literatura Ikerketa azpi-batzordea bere hiztegia egiteko finkatzen ari den terminologia, eta bien arteko komunikazio sistematikoa ziurtatuko luke.

Kasu guztietan Bibliotekako zuzendariaren gain egongo da informazio-fluxu guzti hauek bideratzea eta koordinatzea. Katalogoaren gaineko erabakiak, aldiz, Biblioteka batzordeak hartuko ditu, OEH edo EHHarekin (zein bere batzordean) egiten den bezala.

3.5. Euskaltzaindiaz kanpoko zirkuitua

Euskaltzaindian usadio arrunta da ohiko egituraz kanpoko adituen aholkua eta iritzia eskatzea. Katalogoari dagokionez, zuzendariaren gain egongo da lan hau egitea, horretarako bi bide erabiliko dituelarik:

a) Arazo zehatzetarako kanpoko adituen iritzia eskatuko du. Adibidez, zuzenbideko terminologia finkatu behar delarik, horretan adituak diren aholkua eta oharrak eskatuko ditu, bere txostena Biblioteka batzordera pasatu aurretik.

b) Arazo orokorretarako, inor baztertu gabe, Joana Albret Bibliotekonomia Mintegia da une honetan Euskal Herrian dagoen plataformarik egokiena.

Mintegi horri dagokionez esan behar da une honetan hamabost bat bibliotekarik parte hartzen dutela bere lanetan. Aurkezpen ofiziala 1997ko Durangoko Liburu eta Disko Azokan egin zen, eta pentsatzekoa da zabalduz eta indartuz joango dela. Hizkuntza arazoak ez ezik, euskal ikuspuntu batetik bibliotekak antolatu (eta bereziki, katalogoak egin) nahi izateak etengabe sortarazten dituen arazoak aztertuko ditu, alegia, arazo terminologikoekin batera, euskal katalogoen definizioa eta ezaugarriak, euskal katalogazio arauen proiektua, euskal bibliografia, etab...

4. KATALOGOAREN ESTATUSA EUSKALTZAINDIAN

Azkue Bibliotekaren Katalogoaren (ABK) erantzunkizuna, zalantza barik, Azkue Biblioteka batzordearena da. Berau da katalogoaren gaineko erabaki guztien arduraduna. Baina gorago aipatu diren arazo linguistikoak konpontzeko Biblioteka batzordeak Euskaltzaindiaren beste batzorde batzuen laguntza behar

du. Eta honek, halabeharrez, eragin zuzena dauka Euskaltzaindiaren egitura osoan, batzorde horiek bere lan-egitaraua baitute, Biblioteka batzordearen premietatik at.

Bestalde, ez da inoiz ahaztu behar Euskaltzaindiak duen itzalaren ondorioz, ABK bihurtuko dela, de facto, erreferentziazko katalogo bat, alegia, eragin handia izango duela Euskal Herriko biblioteka guztietan, bereziki euskaraz edo elebitan katalogatzen hasi nahi duten neurrian.

Gure uste apalean, ondorioa begibistakoa da: Euskaltzaindiak pentsatu behar du katalogo hau egitea bere zeregin estrategikoen artean dagoela, *Euskera* agerkaria, *Orotariko euskal hiztegia*, *Hiztegi batua*, *Euskal Herriko hizkuntz atlasa* edo *Hizkuntz arauak* bezalako proiektuen maila berean.

Faktu horretaz jabeturik, gorago aipatu denaren ildotik, poliki-poliki joan beharko da zehazten zeintzuk izango diren Biblioteka batzordea eta gainetiko batzordeen arteko harremanak, zeinek zer erabakiko duen, noiz, nola, zertarako, nolakoa izango den erabaki horren aplikazioa eta zein estatus eta ondorio izango duen. Era berean, zehaztu beharko da nola koordinatuko diren batzordeak lan hau aurrera eramateko.

Guzti honekin bat, argi eta garbi adierazi behar dira bi gauza: alde batetik, ABKren gaineko erabakiak berari baino ez dagozkiola eta ezin direla beste arlo batzutura zabaldu, are eta gutxiago automatikoki; eta bestetik, Euskaltzaindiaren edo bere batzordeen erabakiak ezin direla automatikoki aplikatu ABK-n, alegia, era honetako katalogo baten izaera, ezaugarriak eta helburuak kontuan hartu gabe.

5. ONDORIOAK

a) Katalogoa burutzeak erabateko lehenetsuna du Euskaltzaindiaren bibliotekan, beste edozeinetan eduki ohi duen legez.

b) Katalogoari buruzko funtsezko erabakiak 1995ean hartu ziren. Txosten honetan orduan martxan jarritako prozesuaren deskribapena eta hartutako erabakien ondorio batzuen zehaztapena besterik ez da jorratzen.

c) Euskaltzaindiak onartu behar du katalogo hau egitea bere zeregin estrategikoen artean dagoela, *Euskera* agerkaria, *OEH*, *EHHA* edo *Hizkuntz Arauak* bezalako proiektuen maila berean. Beste hitz batzuekin esanda: Euskaltzaindiarena ez da izango soilik Azkue Bibliotekaren katalogoa, baizik eta euskaraz edota elebitan katalogatu nahi duen edozein bibliotekatarako erreferentziazko katalogo nagusia. Horrek erantzunkizun handia dakar guretzat.